


Interneteko [webguneen %26ak](#) bakarrik erabiltzen dute komunikazio segurua. Bisitatzen ari garen webguneak komunikatzeko bide segurua erabiltzen ari bada, nabigatzailearen helbide barran giltzarrapo bat azalduko zaigu. Giltzarrapo horrek HTTPS protokoloaren bidez komunikatzen ari garela esan nahi du. Modu seguruan ari garela, alegia.



HTTPS protokoloa erabiltzeko, webguneari ziurtagiri digital bat txertatu behar zaio. Teknikoki oso konplikatu ez den arren, oztopoz beteriko bidea izan daiteke ziurtagiria lortzea. Batzuetan burokrasia lan astuna izaten da. Nahiz eta gaur egun eskaintza asko egon, prezioak ziurtatuko zaituen enpresaren arabekoak dira.

Badago bide bat, askok erabili izan duguna, doako ziurtagiriei esker komunikazio seguruz baliatzeko. *Self-signed* ziurtagiri hauek, zeuk sinatutako ziurtagiriak dira. Teknikoki seguruak diren arren, ziurtagiria sinatzen duenarekiko konfidantzan oinarritutakoak dira. Kasu hauek nahiko ezagunak dira, guztiok gogaitu gaituzke, gogaitzen gaituzte eta gogaituko gaituzte aurrerantzean ere. Hona hemen [adibide bat](#):



Baina dagoeneko guzti honi buelta emateko alternatibetan lanean ari dira. [Let's encrypt](#) proiektuak, (Electronic Frontier Foundation, Cisco, Mozilla, Linux Foundation eta abarrek sustatua) komunikazio seguruagoak sustatzeko helburuarekin, doan azkar eta modu oso errazean sortu daitezken ziurtagiriak lortzeko mekanismoa martxan jarri nahi du; aste honetan [sortu dute lehen ziurtagiria](#).

Frogetan ari dira eta oraindik baliozko jaulkitzaile izateko hilabete batzuk beharko dituzte. Tresna laster erabiltzeko moduan egongo da. Komunitate garrantzitsua beharko da orain lan eder hau ahalik eta webgune gehienetan txertatzeko. Deia argia da, Internet zifra dezagun.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)